

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	OHE, ARROPA ETA ETXEKO OIHALEN PRESTAKETA	Iraupena	30
Kodea	MF1332_1		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Etxeko lanak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Etxeko garbiketa	Iraupena	30
	Etxeko kozinatzea		60
	Etxeko lanetako lanbide-jardunbideak, lanekoak ez direnak.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: ETXE PARTIKULARREAN, ARROPA ETA ETXEKO OIHALAK GARBITZEA, LIXATZEA ETA OINARRIZKO JOSTE-LANAK EGITEA, ETA OHEAK PRESTATZEA..ETXE PARTIKULARREAN, ARROPA ETA ETXEKO OIHALAK GARBITZEA, LIXATZEA ETA OINARRIZKO JOSTE-LANAK EGITEA, ETA OHEAK PRESTATZEA..

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Arropa eta etxeko oihalak (hala nola izarak, toallak eta gortinak) garbitzeko eta lehortzeko teknikak aplikatzea, eta haien garbitasuna eta kontserbazioa baloratzea.

E11.1. Arropa etxeko geletatik jasotzean langileak nahiz arropak izan ditzaketen arriskuak azaltzea.

E11.2 Arropa garbitu aurretik sailkatzen eta prestatzen egiten den jarduera identifikatzea eta justifikatzea.

E11.3. Garbitzeko prozedura-motak azaltzea, zer abantaila eta eragozpen dituzten adieraztea, eta arropa-motekin eta fabrikatzaileen argibideekin erlazionatzea.

E11.4. Arropa garbitzeko eta lehortzeko etxetresna elektrikoak deskribatzea, haien funtzionamendu-eskuliburuak interpretatzea, eta nola erabili eta kontserbatu behar diren eta zer produktu erabili behar diren adieraztea.

E11.5 Arropa biltzeko eta garbitzeko prozesua azaltzea, eta haren baldintzatzaileak baloratzea.

E11.6 Arropa garbitzeko kasu praktikoko batean:

- Gela guztietako arropa eta etxeko oihalak biltzea, emandako argibideei jarraikiz eta zeregin horri lotutako arriskuak prebenituz.
- Arropa garbitzea eragozten duen edo arropari edo erabiliko den etxetresna elektrikoari kalte egin diezaiokeen objektu oro kentzea.
- Arroparen etiketak interpretatzea eta orban-motak sailkatzea, ondorengo garbiketa-prozesuaren arabera sailkatzeko.
- Arropa eskuz edo makinaz garbitzea eta lehortzea, fabrikatzailearen argibideei jarraikiz eta hura ondo zaintzea bermatuz.
- Arropa haren ezaugarrien arabera sailkatzea litzeko.

A2: Arropa haren higieena, kontserbazioa eta estetika bermatuz litzeko prozedurak aplikatzea.

E12.1. Arroparen etiketak aztertzea, fabrikatzailearen aholkuen arabera litzeko-ekintza hautatzeko.

E12.2 Litzeko behar diren etxetresna elektrikoak, prozedurak, osagarriak eta produktuak deskribatzea, eta haien erabilera azaltzea.

E12.3 Garbitzeko eta litzeko prozedura ezagutzea eta azaltzea, eta hura erabiltzeko baldintzak aipatzea.

E12.4 Arropa litzeko kasu praktikoko batean:

- Ehun-mota aztertzea eta etiketak interpretatzea, litzeko prozedura hautatzeko.
- Litzetzea, jardueraren ondoriozko arriskuak saihestuz, eta espero ziren emaitzak lortu diren ikustea.
- Arropa dagozkion armairu edo altzarrietan sailkatzea, banatzea eta txukun jartzea, zama erabiltzearen eta altueran lan egitearen ondoriozko arriskuak prebenituz.

E12.5 Litzeko makina erabiltzeari lotutako arriskuak identifikatzea, eta haiek nola prebenitu azaltzea.

A3: Arropa eta etxeko oihaletan oinarrizko joste-lanak egiteko etxeko teknikak erabiltzea, tresnak ehunaren arabera eta arroparen beharren arabera hautatuz, haiek konpontzeko eta itxura egokia berreskuratzeko.

E13.1. Arropa zer egoeratan dagoen jakiteko informazioa ateratzeko alderdiak ezagutzea eta azaltzea.

E13.2. Arropa edo etxeko oihal motaren arabera eta haiek dituzten konpontzeko beharren arabera erabili beharreko josteko etxeko teknikak eta tresnak erlazionatzea.

E13.3. Josteko etxeko teknikak erabiltzea: albaintzea, errematea egitea, barrera hartzea, botoiak jostea eta abar. Horretarako, ehun-motarekin eta arropa edo etxeko oihal motarekin erlazionatzea, eta sor litezkeen zailtasunak identifikatzea eta prebenitzea.

EI3.4 Jostotzara edo antzekoa txukun edukitzeko modua deskribatzea, eta josteko tresnak eta materialak gordetzeko tokiak identifikatzea.

EI3.5 Arropa baten oinarrizko joste-lanak eskuz egiteko kasu praktiko batean:

- Arropa aztertzea, eskuz oinarrizko joste-lanak egiteko zer behar duen ikusteko.
- Etxeko joste-teknikak ehun-motaren eta haren beharren arabera hautatzea: zulo eta urratu txikiak, krisket eta/edo botoi askatuak, tolestura askatuak eta jostura irekiak, besteak beste.
- Erabili beharreko tresnak erabiltzea, eta hautaketa justifikatzea.
- Arroparen oinarrizko joste-lanak eskuz egitea.
- Jostotzara edo antzekoa, tresnak eta materialak txukun eta aurreikusitako tokian gordetzea.

A4: Ohea egiteko lana deskribatzea eta egitea, atsedena, garbitasuna eta txukuntasuna ziurtatzeko baldintzak bermatuz.

EI4.1. Ohe-jantzi eta osagarri-motak bereiztea, eta abantailak eta eragozpenak aztertzea.

EI4.2. Ohe-motaren eta erabili beharreko arropa-motaren arabera zer prozedura erabili behar den azaltzea, eta osagarriak nola jarri adieraztea.

EI4.3. Oheak prestatzeko kasu praktiko batean:

- Ohe-jantziak hautatzea, ohe-mota, tenperatura eta erabiltzailearen zaletasunak aintzat hartuz.
- Espero diren emaitzak lortzen laguntzen duen zereginaren sekuentzia logikoa eta gutxi gorabeherako iraupena finkatzea.
- Ohea egin aurretiko zereginak betetzea, gero ohea egin ahal izateko.
- Ohea egitea, eta emaitza aztertzea.

EI4.4. Ohe-jantziak aldatzeko denbora eta baldintzak finkatzea, haien egoera baloratuz.

EI4.5. Fabrikatzailearen argibideen arabera koltxoia nola irauli eta biratu behar den eta zenbat denbora behar den jakitea.

EI4.6. Ohea egiteko zereginarekin zerikusia duten arriskuak identifikatzea, eta hartu beharreko prebentzio-neurriak aipatzea.

Edukiak

1. Arropa eta etxeko oihalak garbitzeko eta lehortzeko prozesuak

- Arropa sailkatzeko eta bereizteko teknika.
 - Etxeko oihalak eta arropak biltzea
 - Ezaugarriak: zuntzak, koloreak, zikinkeria-maila, tamaina.
 - Tratamendu bereziak: orbanak kentzea
 - Garbitu aurretik arropak aztertzea Objektuak bilatzea: metalezkoak, paperezkoak eta abar
 - Etiketak interpretatzea
- Arropa eta etxeko oihalak eskuz garbitzeko prozesua
- Arropa eta etxeko oihalak automatikoki garbitzeko prozesua:
 - Etxetresna elektrikoaren tipologia: garbigailua, lehorgailua, garbigailu-lehorgailua
 - Etxetresna elektrikoaren funtzionamendu-eskuliburuak interpretatzea
 - Etxetresna elektrikoak erabiltzea
 - Makinak zaintzeko teknikak
- Arropa zintzilikatze eta biltzeko teknika
- Garbitzeko eta orbanak kentzeko produktu espezifikoak erabiltzea:
 - Garbitzeko eta orbanak kentzeko produktu espezifikoak maneiatzeko teknikak
 - Garbitzeko eta orbanak kentzeko produktu espezifikoaren dosifikazioa
 - Etiketak interpretatzea
- Lan hauetarako tokiak egokitzea: garbiketa, lehortzea, arropa zintzilikatzea, arropa biltzea.
- Garbiketa-prozesuan izaten diren gorabeheran jatorria:
 - Garbitzeko produktuak
 - Saillapen okerra
 - Gehiegizko karga

2. Arropa eta etxeko oihaletan oinarrizko joste-lanak egiteko eta haiek lixatzeko teknikak

- Josteko tekniken aukera: ehun-motak eta haien ezaugarriak
- Josteko tresnen erabilera:
 - Tresna-motak
 - Erabiltzeko modua
- Jostotzararen antolamendua
- Lisatzeko prozesua:
 - Etiketak interpretatzea
 - Lisatze-teknikak: lisaburdina elektrikoa edo lurrunezkoa
 - Jardueren sekuentzia
 - Tenperatura aukeratzea

- Osagarriak aukeratzea
- Produktu espezifikoak erabiltzea
- Prestatutako tokietan jartzeko prozesua
- Tokia lisatze-lanak egiteko egokitzeko teknikak

3. Oheak prestatzeko teknikak

- Ohe bat osatzen duten elementuak:
 - Ohe-motak
 - Koltxoi-motak
 - Ohe-jantzi motak
 - Osagarri-motak eta haien kokapena
- Oheak prestatzeko teknikak eta sekuentzia
- Ohe-jantziak aldatzeko ohiturak baloratzea, planifikatzea eta betetzea
- Koltxoiak iraultzeko eta biratzeko teknika
- Lana egiaztatze teknikak

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Etxeko lanak